

**HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondokoa  
2011-2012**

**Sakontze Egitasmoa**

**Azentu bariozio  
soziogeolinguistikorako lehen  
hurbilpena Kortezubin, Tolosan  
eta Lekarotzen**

Leire Gandarias Ispizua  
Tutorea: Gotzon Aurrekoetxea Olabarri

2012ko uztaila

**AURKIBIDEA**

---

1. Sarrera.....	3
2. Metodologia.....	5
3. Hurbilketa teorikoa.....	11
4. Azentu ereduak	
4.1. Orain arteko ikerketen emaitzak.....	16
4.2. EDAK ikerketako datuak.....	20
5. Azentu bariazio diastratikoa.....	30
6. Azentu bariazio diatopikoa.....	35
7. Euskara Estandarrarekiko bariazioa.....	37
7.1. Euskara estandarraren azentuera.....	38
7.2. Euskara estandarrarekiko bariazioa herriz herri.....	39
8. Ondorioak.....	42
9. Bibliografia.....	44
10. Eranskinak.....	48

## 1. SARRERA<sup>1</sup>

---

Sakontze Egitasmo honek bariazio prosodikoa du oinarri. Lagunek prosodia zer den galdetzen didatenean, hurrengo ariketa hau proposatzen diet: /autoalapurtuzuenetakobatek/ Nola irakurriko zenituzkete hitzok? Zer da hori irakurrita ulertzen duzuen?

- a) “Autoa lapurtu zuen ETako batek”; hau da, ETA erakundeko pertsona batek auto bat lapurtu zuen.
- b) “Autoa lapurtu zuenetako batek...”; bigarren honetan esaldia ez da bukatzen ez bada “...betaurrekoak zituen, besteak ordea txapela” gehituta.

Ez dago erantzun okerrik, biak dira zuzenak baldin eta ahoskera zuzena bada. Esaldi biok idatziz ikusiz gero ez litzateke zalantzarik izango. Alabaina, ahozkotasunean ez ditugu ortografia arauak ikusten, hau da, ez dugu ikusten “eta” maiuskulaz edo minuskulaz idatzirik dagoen. Ondorioz, bestelako ezaugarriez baliatzen gara: prosodiaz hain zuzen. Hitzei ematen diegun indarrak, denborak, iraupenak, azentuak, tonuak... uste baino informazio gehiago ematen digute: haserre gauden, ironia erabiltzen ari garen, esan nahi genuena bukatu dugun edo esaldiak jarraituko duen...

Euskarak ere badu prosodia, eta ondorioz, euskararen bariazio prosodikoa azter daiteke. Euskararen bariazio prosodikoa ez da lexikoa, sintaktikoa eta morfologikoa bezainbeste aztertua izan (lexikoa eta morfosintaxia aztertzen duen bariazio soziolinguistikoko lanak: Ezenarro, 2008; Aurrekoetxea, 2008; Ariztimuño, 2010; Lujanbio, 2011; Ormaetxea, 2008; Santazilia, 2009; Unamuno, 2010...). Hala ere, azken urteotan asko azkartu dira bariazio prosodiko jorratzen duten lanak ere.

Nik ere azentu bariazioa aukeratu dut HIZNET Hizkuntza Plangintza graduondoko bukaerako Sakontze Egitasmo honetarako gai moduan. Izan ere, orain arteko lan dialektologikoetan azentua aldagai moduan ez dela behar beste kontuan hartu izan iruditzen zait. Uste dut prosodia mugari garrantzitsua dela hizkera bat definitzerakoan,

---

<sup>1</sup> Eskerrik beroenak Gotzon Aurrekoetxea eta Iñaki Gamindari Sakontze Egitasmo hau burutze bidean izandako pazientzia eta eskainitako laguntza guztiagatik. Askok ikasi dut zuengandik; eskerrik asko!

hizkera bik ezaugarri morfosintaktiko edo lexiko berdinak izan arren, prosodiak guztiz alda baitezake euren arteko hurbiltasuna.

Sakontze Egitasmo honetan euskararen hiru hizkera ezberdinetako azentuaren analisi soziolinguistikoa eta geolinguistikoa egingo da. Horretarako, EUDIA ikertaldeak sarean duen EDAK<sup>2</sup> corpuseko hiru herritako datuak hartu ditut oinarri: Bizkaiko Kortezubi herriko hizkerakoak, Gipuzkoako Tolosakoak eta Nafarroako Lekarotz herrikoak dira.

Hiru herriok aukeratzeko bidea oso erraza izan da. Alde batetik, geografikoki Euskal Herrian zeharreko toki ezberdinetan kokaturiko hiru herri bilatu nahi izan ditut eta bestetik, orain arteko sailkapenen arabera hizkera ezberdinetakoak izan zitezten. Koldo Zuazok (2008) mendebaldeko sartalde eta sortaldeko azpieuskalkien tarteko hizkeratzat du Kortezubiko hizkera, erdialdeko erdiguneko azpieuskalkizat Tolosakoa eta nafarraren eta nafar-lapurtairen tarteko hizkeratzat Lekarotzekoa.

Hurrengo lerrootan, hiru herriotako bariazioa aztertzen ahaleginduko naiz, bi bidetik: batetik herri bakoitzeko belaunaldi bien arteko bariazio diastratikoa aztertuko dut, helduetatik gazteetara azentuak jasandako aldaketa zenbatekoa izan den ikusteko, eta bestetik, hiru herrion arteko azentu bariazioa zenbatekoa den ikusiko dugu (zeintzuen artean handiagoa/txikiagoa, barazioaren muina zein den...), bariazio diatopikoa, alegia.

Bariazio diastratikoa eta diatopikoa aztertzeaz gain hiru herriotako analisiak euskara estandarrekin alderatu ditut. Izan ere, sarri entzun izan dugu euskara estandarren eraginez hizkerak ere estandarizatuz joan direla. Are gehiago, askotan esan izan da euskara estandarreko azentuera Euskal Herri penintsularrean gaztelaniaren eta Euskal Herri kontinentalean frantsesaren eredua hartuz doala. Egungo gazteak euren hizkerak galduz eta euskara estandarerantz hurbiltzen omen doaz, baina hori horrela den ala ez datuetan agertzen ahaleginduko naiz hurrengo lerrootan (ik. Aurrekoetxea, 2003).

---

<sup>2</sup> Corpora (audio eta guzti) erabilgai datu-base honetan: [http://aholab.ehu.es/edak/2/index\\_edak.html](http://aholab.ehu.es/edak/2/index_edak.html)

## 2. METODOLOGIA

HIZNET ikastaroko *Soziolinguistikaren oinarrizko kontzeptuak* ikasgaien Lionel Jolyk argi eta garbi adierazi zuen moduan, “hizkuntzaren gizarte erabileraren berezitasun nagusia aldaketa, bariazioa da” (Joly, 2012: 12). Labovek gainera, aldaketon arrazoiak gizartearen egituretan aurki genitzakeela eta sailkatu ere egin genitzakeela esan zuen (Labov, 1976).

Hizkuntzak, erabiltzen diren heinean, aldatuz doaz, eta faktore ugari dira horretan eragiten dutenak. Faktore horiek, orohar hiru aldagaietan laburbiltzen dira: aldagai geografikoak (bariazio diatopikoa), gizarte aldagaiak (bariazio diastratikoa) eta estilo aldaketak (bariazio diafasikoa).

Lan honetan, belaunaldi ezberdinak eta kokapen geografikoa hartuko dira aldagai moduan; hau da, bariazio soziolinguistikoa (diastratikoa) eta geolinguistikoa (diatopikoa) aztertuko dira.

Gorago aipatutako Lionel Jolyren ikastaro horretan bertan, bariazioa “lexikoan, gramatikan zein morfosintaxian aurki daiteke”ela ikasi dugun arren, bada gutxiago aztertu den beste bariazio mota bat ere: bariazio prosodikoa.

Prosodia ahozko ekoizpenaren parte diren azentua eta intonazioa aztertzen dituen fonologiaren atala da. Hau da, prosodiak intentsitatea, tinbrea, luzeera... bezalako korrelato akustikoei begiratzen die soinuak, hizkerak kasu honetan, definitzeko.

Euskarak badu bariazio prosodikoa aztertzeko corpus espezializatu bat: EDAK (Euskara Dialektalaren Ahozko Korpusa). 2006an EUDIA (Euskal Dialektologia) ikertaldeak, prosodian aditu diren hainbat kolaboratzailearen laguntzarekin (Gaminde, Hualde, Elordieta) sorturiko proiektua da EDAK (ik. Aurrekoetxea, G. eta J. L. Ormaetxea, 2011; Aurrekoetxea, Gotzon, Jon Sánchez eta Igor Odriozola, 2009; Aurrekoetxea, G. eta A. Iglesias, 2010).

Izenak berak dioenez, proiektu honen helburua Euskal Herri osoko hiztunak biltzen dituen corpus homogeneo bat sortzea da. Horrela, euskal eremu geografiko osoan eta

belaunaldi ezberdinetan galdesorta berdinarekin jasotako datuak izanda, bariazio diastratikoa eta diatopikoa aztertzeko aukera ematen du, euskal hizkera ezberdinen ezaugarri nagusienak behintzat ikertu ahal izateko. Baita euskara estandarrak hizkera ezberdinetan eta belaunaldi ezberdinetan izandako eragina zenbatekoa izan den ikusteko aukera ere.

Corpus honek euskararen eremu osoko hizkera garrantzitsuenak biltzen dituzten 100 herritako datuak biltzen ditu. Herri bakoitzean, gainera, belaunaldi bi grabatu dira dagoeneko: bata 45-50 urte ingurukoena eta beste 20-25 urte ingurukoena.

Belaunaldi helduko partaide guztiak erdaraz eskolaratutako emakumezkoak dira: baserri mundua ezagutu zuten arren, ez dira bertatik bizi, hezkuntza formazio basikoa jaso zuten gaztetan eta egun langileak dira.

20-25 urte inguruko belaunaldikoak ere emakumezkoak dira guztiak. Hauek, helduek ez bezala, goi mailako heziketa jaso dute, gehienak unibertsitateko ikasleak edo ikasle ohiak direlarik. Gainera, D ereduan burutu dituzte euren ikasketa guztiak.

Datu bilketarako, inkesta gidatu bidezko metodologia baliatu da. Martinez, Berrio-Otxoa, Altuna eta Jausorok (2011: 49) dioten moduan, “inkestak komunikazioaren teoria soziopsikologiko batean oinarritzen dira, hau da, bi interlokutoreren arteko (elkarrizketatzailea eta elkarrizketatua) elkarrizketa edo hitz jardunean”.

García Ferrandok (2000: 167) inkesta estatistikorako definizioan hainbat elementu bereizten ditu. Horien artean *lagina* dago, hau da, “aztertu nahi den unibertsitateko estatistikoki errepresentagarria den norbanakoen multzoa. Errepresentatibitate hau balizko laginketa akatsen menpekota da; akats hauek, nagusiki, laginaren tamainarekin eta lagina osatuko duten unitateen aukeraketarekin dute zerikusia. Galdesorta laginaren unitate kopurua adina aldiz errepikatzen da. Norbanakoen erantzunak elkarrekin alderatu ahal izateko informazio bilketa era egituratuan egiten da; galdera berberak eta orden berean egiten zaizkie inkestatzen diren gutzietan.” (Martinez, Berrio-Otxoa, Altuna eta Jausoro, 2011: 49)

EDAK corpusaren kasuan, unibertsoa euskararen eremu osoa denez, lagina gune horretan zehar barreiatu 100 herri eta herriko bi lekukok osatzen dute. Ez da lagin handiegia, eta ondorioz akatsen tamaina ere proportzionala izango da, baina pixkanaka-pixkanaka corpora hasiz joango denez, errore margena ere txikituz joango da. Alde honetatik, EDAK corpora lehen urrats bezala kontsideratu behar da, bariazio soziolinguistikoaren eta geolinguistikoaren seinale nagusienak zein diren lortzeko asmoz bideratua.

Informante bakoitzari 246 galderako galdesorta egin zaio: 22 intonazioari buruzkoak (hiru aldiz errepikatuta, 66 erantzun) eta 180 azentuaren ingurukoak. Guztiei galdesorta bera, galderak orden berean dituelarik.

Sakontze Egitasmo honetan, EDAK corpusean dauden aipatutako hiru herrietan (Kortezubi, Tolosa eta Lekarotz) jasotako erantzun bakar batzuk erabiliko ditut. Corpuseko datuek azterketa asko eta askotarikoak egiteko aukera ematen badute ere, ni faktore prosodiko bakarrean zentratuko naiz: azentuan. Hau da, azentu bariazio soziogeolinguistikoa da hemen aztertuko dudana.

Erantzunak jasotzeko bidea erraza da: ikertzaileak erdaraz (gaztelaniaz edo frantsesez) esaldiak esaten dizkio informatzaileari, eta honek euskarara itzultzen ditu galdetzaileak eskatutako ordenean. Informatzaileek azentuaz duten pertzepzioa oso urria denez, datu bilketa mota hau balizkoa da, informanteak ez direlako ari erantzunetako azentua zuzena/okerra den pentsatzen. Emandako erantzunetan zerbait zuzentasunera (eta ez egokitasunera) aldatzekotan, gramatika, morfosintaxia eta lexikoa lirateke afektatuak. Alabaina, ez dira corpus honen azterketa helburu.

Datuok ordenagailuan USB mirkofono bidez grabatu dira *Audacity*<sup>3</sup> programarekin eta ostean *SFSWin*<sup>4</sup> eta *ActivePerl*<sup>5</sup> programa informatikoekin burutu dira markaketa eta etiketazioa. Soinuen analisi akustikoak *Praat*<sup>6</sup> programarekin egin dira. EDAKeko datu guztiekin egiten da gauza bera. Horrela, datu-basean hiztun guztiek galdera bakoitzari emandako erantzun guztien audioak eta transkribapenak aurki genitzake.

---

<sup>3</sup> <http://audacity.sourceforge.net>

<sup>4</sup> <http://www.phon.ucl.ac.uk/resource/sfs/>

<sup>5</sup> [www.activestate.com/activeperl](http://www.activestate.com/activeperl)

<sup>6</sup> <http://www.fon.hum.uva.nl/praat/>

Bide batez, lan honetan analisi estatistiko sakonik (multivariate statistical procedures: Multiple Factor Analysis (MFA) and the Hierarchical Cluster Analysis (HCA), korrelazioa... adibidez) ez egitea erabaki da, sakontze egitasmoa asko korapilatuko duelakoan. Hurrengo lan baterako egiteke geratzen da, hortaz.

Galdesortak dituen 246 galderatatik azentuari dagozkion 180 galderen artean, silaba kopuru ezberdineko hitzak (batekoak: *on, ke, su, ar*; bikoak: *seme, neska, aza, asto*; hirukoak: *alargun, aberats, iturri, alaba*), hitz deklinatuak eta pluralak zein mugagabeak aztertzen ditu EDAK korpusak. Azterketa honetarako, aditza eta hitz deklinatuak alboratu egin dira, konplexutasuna dela eta, sakontze egitasmo bakarra egiteko aukera emango luketelako.

Ahozkotasuneko testuak aztertzea askok uste baino lan nekezagoa da. Izan ere, hiztunak ahots patologiarekin bat izateak, hitz egiteko darabilen abiadurak, bere ahotsaren nolakotasunak... grabaketa bakoitza baldintzatzen du. Esate baterako bizkor hitz egiten duen hiztun baten audioa azertzean silaba kopurua determinatzea askozaz zailagoa izango da edo hiztunak ahots grabea badu, hots batzuk, akaso ez dira ongi ulertuko.

Oztopo fisiologikoez gain, audio kalitateak ere zerikusi handia du audioak zuzen transkribatzeko. Guzti horri, gainera, transkribatzailearen zalantzak gehitu behar dizkiogu. Izan ere, azentua zehazki non ezartzen den determinatzea ez da erraza izaten hizkera guztietan. Batzuk beste batzuk baino argiagoak edo bereizgarriagoak diren arren, beste hizkera batzuetan zalantza askorekin ezarri dut azentua.

Horrela, silaba bateko, biko eta hiruko hitzak aztertuko ditudala erabakita, audio guztiak banan-banan entzun ditut, datu basean dagoen transkribapena eta nire belarriaren eta Praat programak agertutako irudiaren arabera nire uste apala konparatuz. Eraitza, hau da, transkribapenak eranskinetan daude ikusgai.

Hortaz, kasu honetan, hiru herri, herri bakoitzeko lekuko bi eta 56 datu, guztira 336 datutan oinarrituriko azterketa burutuko da. Datuon osagarri, gainera, Gaminderen (1998) *Euskaldunen azentuerak* lana ere baliatuko da.



Datuon analisi kuantitatiboan oso interesatuta nago, bariazioa zehatzago ikusten laguntzen duela uste baitut. Hala ere, analisi kuantitatibo hutsa egiteko hartutako unibertsoa txikiegia denez, analisi kualitatiboarekin osatuko dut.

Egitasmo honetan analizatzeko aukeratutako herriak hiru dira: Kortezubi (Bizkaia), Tolosa (Gipuzkoa) eta Lekarotz (Nafarroa). Herri hauek eta ez beste batzuk hautatu izanaren arrazoi nagusiak honako hauek dira:

- Euskal Herriko zazpi lurraldeetatik hiru ordezkatzan dituzte.
- Hizkeren sailkapen tradizionalan (Bonaparte, 1869; Zuazo, 2008) euskalki ezberdinetakoak dira.
- Euskarak osasun egoera ona dauka hiruretan.
- Ustez, azentu eredu identifika erraza eta, belarriz bederen, desberdina dute.



Kortezubi, Bizkaiko Busturialdea eskualdean dagoen 387 biztanleko herria da (2005eko datuak). Bertako herritarrek eguneroko bizitza Gernika-Lumon egin ohi duten arren, badituzte gernikarregandik bereizten dituzten zenbait ezaugarri linguistiko. Koldo Zuazok (2008) mendebaldeko sartalde eta sortaldeko azpieuskalkien tarteko hizkeratzat du Kortezubiko euskara.

Tolosaldean dago bigarren herria. Tolosak (eskualdeko buru da) 18.044 biztanle zituen 2009an. Aztertuko dugun hiru herrietatik handiena da. Zuazoren (2008) arabera, erdialdeko erdiguneko azpieuskalkia hitzegiten duten tolosarrek.

Hirugarren herria, Lekarotz, Baztanen dago eta 341 biztanle ditu (2010eko urtarrilaren 1eko erroldako datuak). Nafarroa iparraldean kokatzen den arren, Euskal Herri kontinentalarekin harreman ugari izandako herria denez, Zuazoren (2008) aburuz, badu nafar-lapurterraren eraginik ere. Horrela, nafarraren eta nafar-lapurterraren tarteko hizkeratzat jotzen du Zuazok Lekarotzeko hizkera.

### 3. HURBILKETA TEORIKOA

Gorago ere esan dugun moduan, prosodiak azentua, tonuak eta iraupena bezalako ezaugarri suprasegmentalak<sup>7</sup> aztertzen ditu. Hau da, Hymanen (1981: 223) hitzetan ezaugarri suprasegmental hauek “son unidades más amplias que el segmento. Acento, tono y duración se han considerado a menudo propiedades de unidades suprasegmentales tales como la sílaba o la palabra, aunque la armonía vocálica y la nasalización se han visto también a veces incluidas bajo este cabezamiento. Es decir, que rasgos prosódicos como los que acabamos de mencionar es mejor verlos como unidades que abarcan a más de un segmento.”

Hortaz, horren erraz ikusten ez diren arren, hizkuntza ekoizpen orotan daude azentua, tonuak eta iraupena bezalako ezaugarriak: “Los rasgos del acento (intensidad), el tono (timbre) y duración (longitud) están presentes siempre en todo uso lingüístico, lo que hace que toda emisión en cualquier idioma se caracterice por diferentes grados de sonoridad, melodía y ritmo.” (Hyman, 1981: 243).

Hortaz, azentua non den determinatzea ez da lan makala. Van der Hulst-ek (2008), hizkuntzaren arabera azentua identifikatzeko pistak izaera ezberdinekoak izan daitezkeela diosku: “accentual cues may be of a wide variety of types including phonetic, allophonic phenomena, as well as distributional asymmetries in phonotactic patterns”. Azentuaren oihartzuna ematen diguten pistak askotarikoak izan daitezkeen arren, azentua identifikatzeko behin-behineko zerrenda bat proposatzen du van der Hulst-ek. Behin-behinekoa, oraindik ere azentua identifikatzeko ezaugarriak zeintzuk diren argi zehaztuta ez dagoelako. Hona hemen azentudun silabetako ezaugarri fonetikoak eta fonologikoak (van der Hulst 2008: 9):

- Silabak iraupen handiagoa du
- Silabak inklinazio espektro orekatua du
- Anplitude handiagoa du silabak
- Silabak oinarritzko frekuentzia (pitch) altuagoa du

---

<sup>7</sup> Ezaugarri suprasegmentalak segmentuen, hau da, hotsen (bokale do kontsonanteen) gainetik dauden ezaugarriak dira.

- Silaba horretako segmentuak zehaztasun handiagoz, eta hizkiak argiago ahoskatuz ematen dira
- Aukera fonotaktiko handiagoa du silabak
- Silabak prozesu morfologikoetarako gunea markatzen du
- Silaba tonuentzat helduleku da

Historian zehar asko izan dira euskararen prosodia oso konplexua dela nabarmendu duten ikerlariak. Are gehiago, euskarak azentuerarik ez duela ere entzun izan dugu askoren ahotan. Txillardegik (1984: 12) berak ere onartu zuen “luzaroan pentsatu izan dut euskarak ‘ez duela azenturik’. (...) Euskararen beraren alorrean, oso azentu-desberdintasun nabarmenak daude.”

Hualde (1997:3) bat dator Txillardegirekin: “euskal azentuera ez da bat eta bakarra. Euskal azentuerak esan behar dugu, beraz, pluralean. Euskal Herri guztiko azentuera ez dela berdina aspaldidanik da gauza ezaguna.” Euskal azentueren konplexutasunaz ohartzeko, euskal azentuera inguruko hizkuntzen azentu erduekin alderatzea besterik ez dugu egin behar, euskarak ez baitu zerikusirik inguruko hizkuntzen (frantsesaren, gaztelaniaren, ingelesaren...) sistemekin. Adibidez, frantsesez “ez dago hitz mailako azenturik; aldiz, azentua hitz andana edo talde prosodikoaren azken silaban ezartzen da” eta gaztelaniaz “azentuak hitzaren azken hiru silabetariko batean egon behar du eta ezin daiteke egon beste inongo silabatan” (Hualde 1997: 5).

Euskarazko prosodiaren inguruko lehenengo hausnarketak, hala ere, aspaldikoak dira. N. Navarro Tomas (1926), Larrasket (1928), R. M. de Azkue (1930) eta S. Altube (1932)-ren lanekin hasi ziren; baina, Mitxelena (1958, 1972, 1976) izan zen azentuaren inguruko azterketei ekinaldi indartsuena eman ziena. Txillardegiren (1984) doktorego tesia ere azentu bariazioaren ingurukoa izan zen.

Alabaina, azken hiru hamarkadetan aurrerapen handia burutu da alor honetan, batez ere Jose Ignacio Hualderen bultzadari esker. Hualderen lanez gain, ezin aipatu gabe utzi Gorka Elordietak eta Iñaki Gamindek barietate ezberdinen azterketan buru belarri egindako lan oparoa, hirurek ere ekarpen handia egin baitiote euskarari hizkeren azentuerak aztertuz (Elordieta, 1999, 2000, 2003, 2007a, 2007b, 2008, Elordieta et al., 1999, Gaminde, 2003, 2004, 2006, 2007a, 2007b, 2010, Hualde 1997, 2006). Hala ere,

erabilitako irizpideak, metodologia eta galdetegiak desberdinak izan direnez, EDAK corpora sortu arte, ezin izan dugu Euskal Herri osoari begirako ikuspeirik sortu azentu bariazioaz.

Bestalde, azken aldian euskal hizkeren bariazio soziolinguistikoa aztertzen duten lanak asko ugartu badira ere, ikerketa honek EUDIA ikertaldeak eskuartean darabilen ikerketa-proiektuaren barnean hasitako hizkeren arteko desberdintasunen azterketei jarraitzen die (Aurrekoetxea & Iglesias 2010, Aurrekoetxea, Gaminde & Iglesias 2011...).

Aurrerapausu handiak eman diren arren, oraindik ezezagunak zaizkigun atal ugari ditu euskal azentuerak. Izan ere, euskarak, horren eremu geografiko txikia hartzen duen hizkuntza honek, izugarrizko azentu eredu barietatea izateak ez du laguntzen euskal azentuerak definitzeko garaian. Hala ere, ezin uka genezake bariazio zabal hori aberastasun handia ere badela: euskal hizkeren artean, azentu tonalak dituzten sistemak zein inongo azentu bereizketarik egiten ez duten sistemak (Tokioko japonieraren antzekoak) aurki genitzake besteak beste (Aurrekoetxea, Gaminde, Gandarias eta Iglesias, 2011).

EUDIA ikertaldeak aurrera daraman proiektu handi honetan (MICINN FFI2011-28324), euskararen azentuerak definitzeko eta euskararentzat egokia izango den ToBI sistema bat osatzea da helburu nagusia. ToBI (Tones and Brake Indices) sistema ahozkotatasunaren prosodiaren transkribapena eta anotazioa nolakoak izan behar diren dioen erabaki multzoa da: “és un sistema d’anotació prosòdica que ha esdevingut model de referència per a la transcripció de la prosòdia en moltes llengües. S’han desenvolupat sistemes ToBI per a l’anglès, l’alemany, el japonès o el coreà, entre d’altres” (Prieto, Aguilar, Mascaró, Torres eta Varell, 2009: 290).

Aipatu berri den proiektu honetan euskararen ToBI-a osatzeko ondoko urratsak zehaztu dira (Aurrekoetxea, Gaminde, Gandarias eta Iglesias, 2011):

- a) Lehenengo, herrietako azentu arauak zeintzuk diren jakin ahal izateko, hauek definitzen edo ezaugarritzen dituzten parametroak zeintzuk diren erabaki.

- b) Bigarren, euskal hizkera ezberdinen azentuerak definitu, hizkera bakoitzeko azentu-motaren arauak zehaztuz. Hizkera guztien ordezkaritza bermatzeko, euskararen eremu osoko 100 herri hartu dira.
- c) Hirugarren, hizkera ezberdin bakoitzetako esaldi mota ezberdinen (galderazkoak, adierazpenezkoak...) kurba intonatiboa aurkitu.
- d) Eta bukatzeko, euskara estandarrak izan beharko lukeen esaldi mota bakoitzaren egitura intonatiboa erabaki.

Azentuerak definitzeko, lehenengo urratsa (a) emana dago jada (Aurrekoetxea, Gaminde, Gandarias eta Iglesias, 2011). Izan ere, Bailey (2007), Heinz (2010), Hulst & Goedemans (2010), Hulst, Goedemans & Zanten (2010), Hulst & Goedemans (2009), Hualde (1997, 2006) eta Gamindek (1998, 2010, 2011) proposaturiko ideiak hartu dira oinarri, besteak beste, euskararen azentuera definitzeko parametroak erabakitzeko. Hona hemen erabakitako irizpide orokorrak:

- (1) Azentu eremua zehaztea: galdegaigunea, sintagma, talde klitikoa, berba prosodikoa, berbaren erroa...
- (2) Azentuaren norabidea eta silaba buruaren kokapena zehaztea: [1 (azentua lehenengo silaban ezkerretik), [2 (azentua bigarren silaban ezkerretik), [3 (azentua hirugarren silaban ezkerretik), 2] (azentua bigarren silaban eskuinetik) edo 1] (azentua lehenengo silaban eskuinetik).
- (3) Silaben pisua, silaba kopurua eta estrametrikalitatea (azentua azken silaban ezin txerta ahal izatea)
- (4) Azentuaren eta tonuaren arteko elkarreragina
- (5) Azentu bereizgarritasun maila ezberdinak: hitz azentudun eta azentugabeen artean, kontraste lexikoa, kontraste lexiko gabeko arau orokorren salbuespenak eta azentuaren araberako singular eta plural bereizketa.

Lehenago ere aipatu den moduan, sakontze egitasmo hau proiektu horretako (b) puntuan baino ez da zentratuko. Horrela, goiko bost irizpide orokor hauek aplikatuz hiru herriren azentuerak definituko dira hurrengo lerrootan.

Bost puntu horiek lantzeko adina informaziorik eta astirik ez dugunez, ahalik eta puntu gehien aztertzen ahaleginduko naiz txosten honetan. Izan ere, euskararen prosodian

oraindik ere asko dago aztertzeko bost puntuok zehatz-mehatz deskribatzera iritsi ahal izateko. Horrela, (2) azentuaren norabidea eta silaba buruaren kokapena zehaztea eta (3) silaben pisua, kopurua eta estrametrikalitatea osorik aztertuko badira ere, (4) atala aztertu gabe utziko da, tonuak sartuz gero beste sakontze egitasmo oso bat beharko genukeelako. (1) azentu eremua ere ez da zehaztuko hurrengo lerrootan, erabiltzera goazen baino datu gehiago hartu beharko baikenituzkelako eskuartean horretarako.

(5) atalean, singularraren eta pluralaren arteko bereziketarik ematen den eta kontraste lexikorik dagoen (/u'ra/ edatekoa eta /'ura/ hirugarren pertsona singularra; /ba'soa/ oihana eta /'ba'soa/ edalontzia...) aztertuko dira.

## 4. AZENTU EREDUAK

---

Gure datuak aztertzen hasi aurretik, hiru herriotako azentu ereduei buruz egindako ikerketak aurkeztuko dira jarraian. Euskal azentueran aditu diren hainbat euskal ikertzailek proposatzen duten eredia gure datuetan zenbatean urruntzen edo hurbiltzen den ikusiko da gero.

### 4.1. Orain arteko ikerketen emaitzak

#### 4.1.1. Kortezubi

Kortezubiko bertako azentuera gehiegi aztertu ez bada ere, asko izan dira mendebaldeko azentuera eta gernikaldekoa aztertu duten autoreak: Azkue (1923, 1931-32), Altube (1934), Mitxelena (1972), Basterrechea (1974-75), Txillardegik (1992), Gaminde (1993a,b, 1997), Elordieta, Gamide eta Hualde (1998), Elordieta (2001)... Hainbeste izan dira, ezen guztiak aipatzea ezinezkoa bailitzateke. Hala ere, orohar esan izan dena zer den (gainetik baino ez bada ere) aztertzea interesgarria da, azentueren gai hau zein lausoa den ikusteko baliagarria baita.

Ikuspegi orokorra kontuan hartzen bada, Mitxelenak (1972: 111) bereiztu zituen lau azentu tipoetako I. taldean sartu zuen Kortezubiko azentuera. Sailkatze oso orokorra da euskararen eremuaren mendebalde eta erdialde gehiena hartzen baititu bere baitan. Mitxelenaren arabera, talde honetako hizkerek singularra eta plurala bereizteaz gain, hitz markatuak ere badituzte.

Txillardegik (1984: 17) “W” gisa bataiatzen duen mendebaldeko multzoan sartzen du hizkera hau: “Azentu-unitatearen ezkerretatik hasi eta azentua (+2) silaban jartzea.<sup>8</sup> Hizkera gehienetan, multzo zabal honi gagozkiolarik, hiru silabatako unitateetan bederen (+1); eta ez-markatua, berriz, (+2) beraz, singularra.” Laburbilduz, hitz ez-markatu eta singularretan [2 da azentua, eta hitz markatu eta pluralatan [1.

---

<sup>8</sup> Goragoko azalpenean jarritako [2, (+2) zein [+2] gauza berbera dira. Era berean, eskuinetiko norantza duten azentueretan, ez dago bereizketarik 2], (-2) eta [-2] artean.



Alabaina, silaba biko hitzak baino ez ditu aztertzen Txillardegik (1984: 92): *atzó, otzá, attá, ejó... apatxá* da aztertzen duen hiru silabako hitz bakarra: “apatxá hitzean, (+2) silaba aztertzen badugu, maiztasun gailurtzailea /txá/ silaban dago, dudarik gabe. (...) (+2) silaba horretan azentu bigarrenkaria edo sekundarioa dagoelarik.” Hortaz, berak ere ez du ziurtasun gehiegirik emandako azentu ereduan.

Hualde (1997: 174) bat dator Mitxelenarekin, honek ere Gernikaldean “hitz gehienekin singularra eta plurala azentuaren aldetik bereizten direla” nabarmentzen baitu:

- i. Lagunék esan deu (sg.)  
Lagúnek esan dabe (pl.)
- ii. Lagunerí (sg.)  
Lagúneri (pl.)

Gainera, hitz markatuak singularrez eta pluralez berdin azentuatzen direla erakusten du liburuan (idem: 174).

- iii. gusúrtizek esan deu (sg.)  
gusúrtizek esan dabe (pl.)

Horrela, azentu markatudun hitzek azentua edozein silabatan izan dezakete Hualderen ustez, eta hitz azentugabeek<sup>9</sup>, azken silaban; hau da, 1]. Gaminde (1997: 182) Hualderen hausnarketa honekin bat datorren arren, gehitzen du Busturialdean, orohar, hitz markatu gehienak [2 direla.

Bistan da, hitz azentugabeak direla esan arren, azentua hitz guztiei markatu zaiela (azentudun zein azentugabe) bereizkuntza argiago uzteko. Izan ere, “hitz azentugabeek ez daukate berez azentu gailurrik” (Hualde 1994: 1554) baina azentua har dezakete talde prosodikoaren bukaeran daudenean. Hau da, Gernikaldeko hizkeran esate baterako,

---

<sup>9</sup> “Hitz azentudunek azentu bat dute silaba jakin batean. Azentugabeek aldiz ez dute berez inolako prominentziarik inongo silabatan. (...) Hitz gehienak azentugabeak dira, hain zuzen.” (Hualde 1994: 1552)

*buru*, berez, azentugabea den arren, jarraian agertuko diren eta eranskinetan ikusgai dauden datuotan *bu'ru* markatu da '*buru* ez dela argi utzi nahian.<sup>10</sup>

Bestalde, Elordietak, Gamindek eta Hualdek (1998: 412) argi dute “Bizkaiko kostaldeko azentueran azentua tonu beherakadarekin lotuta dagoela. Hau da, hiztunek azentua sentitzen dute silaba batean hurrengo silaban tonu beherakada handia baldin badago”. Gainera, Gaminderen (1993a: 52-53) arabera Kortezubiko azentuera tonala da. Hau da, azentuaren gailentasuna silaba baten baino gehiagotan egon daiteke eta bigarren silabatik aurrera tonu altua mantentzen da tonu baxu bat jo arte. Hona hemen adibide pare bat (Elordieta, Gaminde, Hualde 1998: 413)

iv. ar/gittasu'ne \ edo la/gune'na \ (sg.) *baina* la/'gu \ nena (pl.)

Laburbilduz, esandako guztia kontuan harturik, eta urteen poderioz mendebaldeko azentueraren definizioak jasandako eboluzioa ikusita, Kortezubiko hizkeran gisa honetako azentuerak aurki genitzake (Gaminde 1993b: 127-129):

- Silaba bateko hitzak: o-ó
- Silaba bateko hitz markatuak: ó-o \_\_\_\_\_
- Silaba biko hitz azentugabeak: o-ó-ó (edo o/ o-ó \ )
- Silaba biko hitz markatuak: o-ó-o \_\_\_\_\_
- Hiru silabako hitz azentugabeak: o-ó-ó-ó ( edo o/ o-o-ó \ )
- Hiru silabako hitz markatuak: o-ó-o-o

#### 4.1.2. Tolosa

Tolosaldeko azentuera ez da Gernikaldekoa edo behintzat mendebaldekoa bezainbeste aztertua izan. Ikus dezagun bada, nola definitu izan den Tolosako hizkera orain arteko ikerketetan.

Gorago ere esan den moduan, Mitxelenak (1972) ezaugarri nagusien arabera egin zuen banaketa lau azentu-tipo ezberdinetan. Hortaz, Tolosako hizkeran ere azentuaren bidez

<sup>10</sup> IPA Transkribapen fonetikoan egin ohi den moduan, azentua markatzeko azentudun silabaren aurrean jari da dagokion ikurra (marra bertikala). Horrela, '*buru* eta *búru* edo *bu'ru* eta *burú* gauza berbera dira.

singularren eta pluralaren arteko bereizketa gauzatzen denez eta (ondorioz,) hitz markatuak daudenez, hau ere I. tipokoa da, Kortezubiko hizkera bezala. Esan beharrik ere ez dago, ezaugarri horiek partekatu arren, era desberdinetan gauzatzen dituztela hizkera biek.

Tolosaldeko hizkera aurrekoa bezain aztertua ez izatearen gakoa Hualdek (1997: 109) aipatzen duen hau izan daiteke: “Euskal Herriko erdialdeko eskualde zabal batean aurkitzen dugun azentuera [+2] da; hau da, azentuaren kokagunea bigarren silaba da gehienetan. (...) [+2] araua duten azentu sistemen artean desberdintasun batzuk aurkitzen badira ere, funtsean berdintsuak dira denak, azentu arau nagusia bera baitute.”

Txillardegik (1984: 328-341) Larramendiren obraren bitartez XVIII. mendeko gipuzkeraren azentua definitzean ere, hitz markatu eta ez-markatuen arteko bereizketa bazegoela aldarrikatzen du. Are gehiago, markatuak [1 direla diosku.

Hortaz, motzean esanda, Tolosako hizkerak gidoi hau jarraitzen du (Gaminde 1998: 140)

- Silaba bateko hitzak: ó-o
- Silaba biko hitz azentugabeak: o-ó-o
- Silaba biko hitz markatuak: ó-o-o
- Hiru silabako hitz azentugabeak: o-ó-o-o
- Hiru silabako hitz markatuak: ó-o-o-o

#### 4.1.3. Lekarotz

Orain artean egindako lanak aztertzen hasi orduko, aipatu beharra dago Baztango hizkera sailkatzean zalantza egon dela luzaroan. Salaburuk (1984: 307) ere aitortzen du hori: “Batzutan goinafarrekotzat hartu izan dute eta beste zenbaitetan, berriz, lapurteraren tankera aurkitu izan diote. Egia esateko bi euskalkien ezaugarriak ditu eta, nire ustez, azentu mailan ere horrelako zerbait gertatzen da: bien arteko zubian gaude hemen ere.”

Hirugarren hizkera hau Mitxelenaren III. tipokoa da (1972: 113-115). Gaztelaniatik hurbilen dagoen hizkera omen da azentuaz den bezainbatean. Gainera, “the absolute singular regularly takes its stress on the next-to-last syllable”; hau da, 2] azentuera du Lekarotzeko hizkerak gaztelaniazko hitz gehienek, (*palabras llana* deritzenek) bezala. Hitzek azentua absolutiboan ezartzen den toki berean izango dute pluralean eta bestelako deklinazioetan ere: *'asti* (sg. Absolutiboa), *'astirik* (partitiboa)... Hala ere, hizkera honetan atzizki batzuek azentua erakar dezaketela ere gogorarazten du Mitxelenak, eta hizkera honetako azentuerak ez duela balio bereizgarririk; hau da, ez dituela singularra eta plurala bereizten, ezta hitz pareak ere (*baso* “edalontzi” zein “oihan” izan, berdin azentuatzen da)...

Txillardegik (1984: 17) “E” (ekialdekoa) taldean sartze ditu Mitxelenaren II eta III tipoko azentuerak. Horrela, hitz azentugabeetan 2] da azentuera eta markatuetan 1].

Salaburu (1984: 309) ere bat dator aurreko ikertzaileekin: “markagabeko kasuetan, oso erraz berez daiteke azentua: beti azkenaurreko silaban paratzen dugu”. Hitz markatu gutxi batzuk identifikatzen ditu geografi izenetan, 1] gisakoak. Hala ere, markatu izateko baldintza kontsonantez edo irristariz (diptongoz) bukatzea da. Beste era batean esanda, silaba pisutsuak azentua azken silabara erakartzen du geografia izenetan.

Ez dirudi zalantza gehiegirik dagoenik hizkera hau definitzean. Hortaz, laburbilduz, honako egiturak aurki genitzake Lekarotzeko hizkeran (Gaminde 1998: 212)

- Silaba bateko hitzak: ó-o
- Silaba biko hitz azentugabeak: o-ó-o
- Hiru silabako hitz azentugabeak: o-o-ó-o

#### **4.2. EDAK ikerketako datuak**

Gorago ere aipatu dudan moduan, EDAK datu-baseko datuak dira hemen hizkeren bariazioa aztertzeko erabiliko direnak. Horrela, bada, datu-basetik<sup>11</sup> hartu dira eranskinean atxikitako hitz zerrendak.

<sup>11</sup> [http://aholab.ehu.es/edak/2/index\\_edak.html](http://aholab.ehu.es/edak/2/index_edak.html)

Bariazio diastratikoa eta diatopikoa aztertzen hasi aurretik, atal honetan, datu base horretako audioetatik ateratako informazioa kuantifikatuko da herriz herri.

#### 4.2.1. Kortezubi

Orain arteko ikerketak azertu ostean, laburpen hau osatu da Kortezubiko hizkerako azentu eredua definitzeko pare bat orrialde gorago:

- Silaba bateko hitzak: o-ó
- Silaba bateko hitz markatuak: ó-o
- Silaba biko hitz azentugabeak: o-o-ó
- Silaba biko hitz markatuak: o-ó-o
- Hiru silabako hitz azentugabeak: o-o-o-ó
- Hiru silabako hitz markatuak: o-ó-o-o

Eranskinean atxikita dauden EDAK datu-baseko datuak aztertzen baditugu, hurrengo azentu egiturek aurki genitzake:

Heldua (H)	Silaba bat	Bi silaba	Hiru silaba
1] = o-ó, o-o-ó, o-o-o-ó	7	12	8
2] = ó-o, o-ó-o, o-o-ó-o	7	6	4
3] = o-ó-o-o			1
[1 = ó-o-o		6	
[2 = o-ó-o-o			3

Gaztea (g)	Silaba bat	Bi silaba	Hiru silaba
1] = o-ó, o-o-ó, o-o-o-ó	7	12	8
2] = ó-o, o-ó-o, o-o-ó-o	7	6	5
3] = o-ó-o-o			
[1 = ó-o-o		6	
[2 = o-ó-o-o			3

Taula bi hauetan orain arteko ikerketetan aurreikusitako egiturez gain, ó-o-o eta o-o-ó-o formak ere aurki genitzake Kortezubiko hiztun bietan. Biak ere forma markatuak dira. Bestela, badirudi gure datuak orain artean esandakoekin bat datozela: forma markatu gabeetan 1] egitura dugu eta markatuetan arruntena 2] bada ere, bestelako formak ere aurki genitzake. Hona hemen hiztun bietan aurki genitzakeen hainbat adibide:

- Hitz markatugabeak:
  - Silaba batekoak: *o'na, u're...*
  - Bi silabakoak: *neś'ka, śemi'e, ka'tu, katu'e...*
  - Hiru silabakoak: *abe'ratś, alar'gun, alargu'ne...*
- Hitz markatuak pluralak direlako:
  - Silaba batekoak: *'onak, 'urek...*
  - Bi silabakoak: *'neśkak, śe'miek, ka'tuek...*
  - Hiru silabakoak: *abe'ratśak, alar'gunek...*
- Hitz markatuak azentua berbarena delako (azentu lexikoa):
  - Bi silabakoak: *'denda, 'dendie, 'dendak...*
  - Hiru silabakoak: *be'lari, be'lari fe, be'lari fek...*

Horrela bada, (2) eta (5) atalak zehaztu ditugu jada: (2) azentuaren norabidea eta silaban kokapena nahiko argiak dira eta (5) bereizgarritasuna singularraren eta pluralaren artean egiteaz gain, lexikoki ere gauzatzen da.

Atal bi hauek aztertu ostean, gainera, (3) silaben nolakotasunaz ere hitz bi egin genitzake. Izan ere, ikusi dugu silaba pisutsuak dauden kasuetan, silaba pisutsuak ez diola eragiten azentuari:

- v. *alar'gun* hitzak /gun/ silaba pisutsua du, baina,  
*alargu'ne* hitzean /gun/ silaba pisutsuak ez du azentua bereganatzen.

Erroak duen silaba kopuruak ere ez dio eragiten azentuari. Hau da, Kortezubiko hizkeran silaba kopuru ezberdinetako hitzak maila berekoak dira, azentu arau berdinak jarraitzen dituzte.

Datuek, gainera, argi erakusten dute hizkera honetan azkeneko silaban azentua egon daitekeela. Hortaz, hizkera hau ez da estrametrikala: *alargu'ne, katu'e, u're...*

Esandako guztia laburbiltzen du hurrengo taulak. Bertan, gainera, azentu norabidea eta azentuaren silaba kokapena zenbatean betetzen den ere ikus genezake.

		Betetzen da? Zenbatean?			
		56 datutatik		Ehunekotan	
		H	G	H	G
(2) Azentu norabidea eta kokapena	[1	6	6	%10,71	%10,71
	[2	3	3	%5,36	%5,36
	[3	0	0	%0	%0
	1]	29	29	%51,79	%51,79
	2]	17	18	%30,36	%32,14
	3]	1	0	%1,78	%0
(3) Silabak	Kopurua	Ez	Ez		
	Pisua	Ez	Ez		
	Estrametr.	Ez	Ez		
(5) bereizgarritasuna	sg. eta pl.	Bai	Bai		
	lexikoa	Bai	Bai		

Datuei eta eranskineko taulari begiratu gero, argi ikusten da heldua eta gaztea ez direla gehiegi urruntzen emandako azentuera patroietan: biek ere 1] egiten dute singular guztietan (hau da, hitz ez markatuetan), datuen %50 baino gehiagoan eta hitz markatuen artean aukerak zabaltzen diren arren, gehienak (%32,14) 2] egiturakoak dira hitzuntzietan.

Markatuen artean 2] egituratik aldentzen direnak lexikoki markatutako hitzak dira gehienak: [2 egituradun hiru hitz (%5,36): *be'lari, be'lari fe, be'lari fek* eta [1 egituradun sei: *'denda, 'dendie, 'dendak, 'oɬar, 'oɬara, 'oɬarak*.

Helduaren datuetan badago 3] egituradun hitz markatu bat ere: *i'śśśuek*. Salbuespentzat hartzeko adibidea dela esango nuke, hiztunak ahalegin gehiegi egiten baitu hitza ahoskatzean, silaba guztiak nahita gehiago markatuz (indar berezia emanaz ahoskatuz...).

#### 4.2.2. Tolosa

Tolosari dagokionez, orain arteko ikerketetatik atera dudan ondorioa hurrengo hau da:

- Silaba bateko hitzak: ó-o
- Silaba biko hitz azentugabeak: o-ó-o
- Silaba biko hitz markatuak: ó-o-o
- Hiru silabako hitz azentugabeak: o-ó-o-o
- Hiru silabako hitz markatuak: ó-o-o-o

Eranskinean dauden datuetan ikus genezakeenaren kuantifikazioa da beste hau:

Heldua (H)	Silaba bat	Bi silaba	Hiru silaba
[1 = ó-o, ó-o-o	10	6	
[2 = o-ó, o-ó-o, o-ó-o-o	4	18	17
[3 = o-o-ó-o			1

Gaztea (G)	Silaba bat	Bi silaba	Hiru silaba
[1 = ó-o, ó-o-o	14	5	
[2 = o-ó-o, o-ó-o-o		19	16
[3 = o-o-ó-o			2

Ikerlari adituek esandakoa betetzen dela esan genezake. Hala ere, badaude aldaketa txiki batzuk, gure datuetan o-ó ere agertzen baita. Gainera, hiru silabako hitz markatuetarako o-o-ó-o egitura ere aurkitzen dugu gure datuetan eta ó-o-o-o egituradunik ez. Hala ere, hitz markatu anitzen artean ziur horrelakoak ere badirela.



Argi ikus daiteke silabak azentuatzeko norabidearen joera ezkerretik eskuinerakoa dela Tolosan belaunaldi bietan. Hitz markatugabeek ezkerretik eskuinera bigarren silaban, [2, izan ohi dute azentua eta markatuen artean lehenengo silaba da nagusi belaunaldi bietan, [1:

- Hitz markatugabeak:
  - Bi silabakoak: *še'mea, ka'tua, še'meak, ka'tuak...*
  - Hiru silabakoak: *i'turi, a'laba, i'tsašo...*
- Hitz markatuak azentua berbarena delako (azentu lexikoa):
  - Bi silabakoak: *'denda, 'dendie, 'dendak...*
  - Hiru silabakoak: *be'lari, be'lari fe, be'lari fek...*

Bereizgarritasunaz den bezainbatean, datuek argi erakusten dute singularra eta plurala ez direla azentuaren bidez bereizten Tolosan: *'sua, 'suak, 'kea, 'keak, o'γia, o'γiak, a'larguna, a'largunak...* Hitz lexikoak, aldiz, badaude zenbait. Belaunaldi biek aitortzen dute *'ura* eta *u'ra* ez direla gauza bera. Lehenengoak hirugarren pertsona singularrari egiten dio erreferentzia eta bigarrenak iturritik irteten den likidoari.

Horrela, bada, arau orokorra [2 izanda, silaba bakarreko hitzak (guztiak gaztearen kasuan, 10/14 helduarenean) azken silaban azentuatuta beharko lirateke. Hau da, *śu'a, ke'a...* izan beharko lirateke. Baina ez. Datuetan *'sua, 'kea...* da aurkitzen duguna. Hortaz, Tolosako hizkera estrametrikala dela esan genezake, araua [2 izan arren, azken silaban azenturik izan ezin dezakeelako.

Kortezubin ikusi dugun moduan, Tolosan ere silaben pisuak eta silaba kantitateak ez du eragiten azentua ezartzerakoan.

Hona hemen orain arte esandakoaren laburpena ehunekoekin osatuta:

		Betetzen da? Zenbatean?			
		56 datutatik		Ehunekotan	
		H	G	H	G
(2) Azentu norabidea eta kokapena	[1	16	19	%28,57	%33,93
	[2	39	35	%69,64	%62,50
	[3	1	2	%1,79	%3,57
	1]	0	0	%0	%0
	2]	0	0	%0	%0
	3]	0	0	%0	%0
(3) Silabak	Kopurua	Ez	Ez		
	Pisua	Ez	Ez		
	Estramet.	Bai	Bai		
(5) bereizgarritasuna	sg. eta pl.	Ez	Ez		
	lexikoa	Bai	?		

Gorago ere esan dugun moduan, [2 egitura da nagusi Tolosan. %69,64ean ematen da helduen artean eta %62,5ean gazteetan.

Markatuen egitura orokorra [1 dela ere esan dugu. Belaunaldi helduko hiztunak gisa honetako 16 hitz ekoiztu ditu. 16 hitz horietatik, baina, silaba bakarreko 10 hitz ez dira markatuak, estrametrikalitatearen ondorioz [1 egiturakoak bihurtuak baizik: 'śua, 'kea, 'feja, 'urak, 'keak, 'lurak... 3 lexikoki markatuak ('đenda, 'denda, 'dendak) dira eta beste hiru arau orokorraren salbuespentzat har genitzake: 'śeme, 'neśka, 'neśkak. [3 egituradun ekoizpen bakarra ere, *abe'ratśak*, salbuespentzat har genezake.

Belaunaldi gazteko hiztunaren ekoizpenek helduaren ekoizpenen antz handia dute. Gazteak, baina, [1 egituradun 19 hitzetik silaba bakarreko guzti-guztiak estrametrikoki ahoskatzen ditu: 'ona, 'ura, 'śua, 'kea, 'fejak, 'lurak, 'arak... Helduak bezala, gazteak ere hiru hitz ditu lexikoki markatuak direnak: 'đenda, 'denda, 'dendak. Alabaina, 'neśka, 'neśkak hitzekin gertatzen dena ezin azal genezake arau orokorrari jarraituz. Helduak eta gazteak, biek ere singularrean eta pluralean 'neska' hitza [1 egiturako egin dute. Akaso, lexikoki markatua izango da hitz hau ere. Bukatzeko, gazteak helduak baino [3 egituako

hitz bat gehiago ekoizten du (*aβe'rats', alar'gun*). Biak ere mugagabeen dauden arren, ezin nezake arau orokorraren bidez azaldu zergatia.

#### 4.2.3. Lekarotz

Hirugarren herri honi buruz orain arteko ikerketetan agertutakoaren laburpena da hurrengoa:

- Silaba bateko hitzak: ó-o
- Silaba biko hitz azentugabeak: o-ó-o
- Hiru silabako hitz azentugabeak: o-o-ó-o

Gure datuetan agertzen diren datuak silaba kopuruaren arabera eta azentua ezartzeko norabidearen arabera daude kuantifikatuta hurrengo taula biotan:

Heldua (H)	Silaba bat	Bi silaba	Hiru Silaba
1] = o-ó	1	9	2
2] = ó-o, o-ó-o, o-o-ó-o	8	15	12
3] = o-ó-o-o	0	0	4

Gaztea (G)	Silaba bat	Bi silaba	Hiru silaba
1] = o-ó	0	5	2
2] = ó-o, o-ó-o, o-o-ó-o	14	19	14
3] = o-ó-o-o	0	0	2

Hasteko eta behin, datuok belarriz eta Praat programaren bidez kurba ikusiz nik neuk markatu ditudala gogoratu nahiko nuke. Izan ere, markaketan zalantza ugari izan ditut, batez ere zenbait hitzetan diptongoak ekoizten dituen edo ez erabakitzerako orduan.

Orohar, betetzen da orain arteko ikerketek esandakoa:

- Silaba bateko hitzak: *'onak, 'ekjak, 'šejá, 'ure...*

- Silaba biko hitzak: *o'yiak, še'mea, heška...*
- Hiru silabako hitzak: *a'laβa, i'ʔfašoa, βe'larjek...*

Kortezubin bezala, Lekarotzen ere azentuatzeko norabidea eskuinetik ezkererakoa da. Hala ere, hemen ohikoena 2] egitura da. Egitura horretatik aldentzen diren hitzen nolakotasuna aztertuta, baina, ikus genezake uste baino hurbilago daudela 2] egituratik.

Helduaren kasua aztertuz gero, hurrengoak dira 1] egitura bezala definitu ditugunak: silaba bateko hitz bat (*lu'rak*); silaba biko 9 hitz (*neś'ka* mugagabea, *neś'ka* singularra, *neś'kak* plurala, *še'me*, *sa'kur*, *o'yi*, *o'lar*, *aś'toa*, *aś'toak*) eta hiru silabako beste hitz 2 (*aβe'rats*, *alar'yun*). 12 hitz horietatik 7 mugagabeen daude. Nire ustez, hizkera honetan azentua artikuludun hitzei (singularrei) ezartzen zaie 2] egituraren arauaren barruan, eta hortik mugagabea sortzean azentua singularrean zegoen toki berean gelditzen da:

- vi. *še'mea* singularrean 2] → *še'me* mugagabea 1] eta *še'meak* plurala 2]  
*sa'kura* (sg.) → *sa'kur* (mggb.) eta *sa'kurak* (pl.)  
*o'ya* (sg.) → *o'yi* (mggb.) eta *o'yiak* (pl.)  
*o'lara* (sg.) → *o'lar* (mggb.) eta *o'larak* (pl.)  
*aβe'ratsa* (sg.) → *aβe'rats* (mggb.) eta *aβe'ratsak* (pl.)  
*alar'yuna* (sg.) → *alar'yun* (mggb.) eta *alar'yunak* (pl.)  
*neś'ka(a)* (sg.) → *neś'ka* (mggb.) eta *neś'ka(a)k* (pl.)

*neś'ka* hitzak singularrean eta pluralean bukaerako artikulua galdu duen itxura guztia dauka. Hortaz, 1] agertu arren, berez 2] direla esan genezake.

*aś'toa* eta *aś'toak* hizkerako araei jarraiki 2] egiturakoak izan beharko liratekeen arren, baina bukaerako silaba pisutsua dutenez, azentua erakarri dutela ikus daiteke, 1] egiturako bihurtuz. Hortaz, hizkera honetan silaben pisuak zerikusia du azentua ezartzeko garaian. Akaso “aberats” eta “alargun” hitzen forma mugagabeetan ere silabaren pisuagatik geratuko zen azentua bukaerako silaban.

*lu'rak* forma baino ez zaigu geratzen azaltzeko. Baliteke bukaerako silaba pisutsuak eraginda azentuatzea 1], hala ere, ez dut horren argi ikusten *'onak* hitzeko silaba pisutsuak ere, kasu horretan, azentua erakarri beharko lukeelako.

Gaztearen kasuan egoera antzekoa da. 1] egituradunen artean 5 mugagabe (hiru hitz bi silabadunak *sa'kur*, *o'ʎar*, *ka'tu* eta bi hitz hiru silabadunak *aʃe'rats*, *alar'yun*) eta bukaera pisutsudun hitz bi (*ka'tue*, *ka'tuek*) dauzkagu.

3] egituraz den bezainbatean, hiztun helduak lau hitz ekoiztu dituen bitartean, gazteak bi baino ez. Belaunaldi bietako hiztunak bat datoz hitz bitan: *i'turia* eta *i'turiak* (*i'turiek* gazteak). Horrez gain, helduak *ʃe'larie* eta *be'lariek* ere ekoiztu ditu. Hitzok markatuak direla esango nuke, hala ere, diptongoen afera berraztertu beharko litzateke lexikoki markaturiko hitzak direla baieztatu aurretik.

Esandakoa laburbiltzeko taula dugu hurrengoa:

		Betetzen da? Zenbatean?			
		56 datutatik		Ehunekatotan	
		H	G	H	G
(2) Azentu norabidea eta kokapena	[1]	0	0	%0	%0
	[2]	0	0	%0	%0
	[3]	0	0	%0	%0
	1]	12	7	%21,43	%12,50
	2]	40	47	%71,43	%83,93
	3]	4	2	%7,14	%3,57
(3) Silabak	Kopurua	Ez	Ez		
	Pisua	Bai	Bai		
	Estramet.	Ez	Ez		
(5) bereizgarritasuna	sg. eta pl.	Ez	Ez		
	lexikoa	Bai?	Bai?		

## 5. BARIAZIO DIASTRATIKOA

---

Bariazio diastratikoa edo soziolinguistikoa “gizarte talde jakin baten aldaera linguistikoa da; hiztunaren ezaugarri sozialen arabera aldaki multzoa.” (Zarraga, Coyos, Hernandez, Joly, Larrea, Martinez, Uranga eta Bilbao, 2010: 90).

Bariazio diastratikoaren barnean sailkapen ezberdin ugari ager daitezkeen arren (hezkuntza luzeraren arabera, talde profesionalen arabera, edukien arabera...) hemen aztertuko dena, adinean oinarritutako bi talde sozialen arteko bariazioa izango da.

Lehenago ere esan den moduan, EDAK datu-baseko hiztunak belaunaldi bitan banatzen dira: bata heldua, emakumezkoa, 45-50 urte ingurukoa, baserri mundua ezagutu arren, bertatik bizi ez dena, erdaraz eskolaratua, gaztetan hezkuntza formazio basikoa jaso zuena eta egun langilea dena eta bestea gaztea, 20-25 urte ingurukoa, emakumezkoa, ikasketa guztiak D ereduan burutu duena eta goi mailako heziketa jasotakoa (gehienak unibertsitate mailakoa).

Belaunaldi biak bereizi xamarak dira eta bakoitzak bere soziolektoa izatea ez litzateke arraroa. Izan ere, “giza talde bakoitzak soziolekto bat dauka, talde horien nahiaren arabera aldatzen direnak (haien kokapena hobetzeko) eta normalean goiko presioen arabera” (Joly, 2011: 13).

Hurrengo lerrootan, hortaz, herri bakoitzeko belaunaldi bien arteko bariazioa aztertuko da. Horretarako, orain arteko ikerketek herri bakoitzerako proposaturiko azentu ereduak gazteek eta helduek zenbatean betetzen duten ikusiko dugu.

Gorago aztertu ditugun orain arteko ikerketetan batez ere azentuaren norabidea eta berau kokatzeko silaba (2) aztertu izan direnez, horri eskainiko diogu arreta berezia.

Gauza jakina da hiztun bakarra belaunaldiko (bi herriko) ez direla aski konparazio egoki baterako. Hiztu bakoitzeko erabilitako 56 datuak ere eskas geratzen dira behin betiko balorazio baterako. Hala ere, azentu bariazioa herri bakoitzean belaunalditik belaunaldira zenbat aldatu den ikusteko ideia bat egiteko baliagarri zaizkigu datuok.

## 5.1. Kortezubi

Hurrengo taula honetan Kortezubiko belaunaldi helduaren eta gaztearen artean dagoen azentu bariazio zenbatekoa den agertzen da. Aurretik ikusi ditugun datuak ere bertan utzi ditut bariazioa zenbatekoa den errazago ulertzen delakoan:

		Betetzen da? Zenbatean?				Bariazioa
		56 datutatik		Ehunekotan		
		H	G	H	G	
(2) Azentu norabidea eta kokapena	[1]	6	6	%10,71	%10,71	<b>%0</b>
	[2]	3	3	%5,36	%5,36	<b>%0</b>
	[3]	0	0	%0	%0	<b>%0</b>
	1]	29	29	%51,79	%51,79	<b>%0</b>
	2]	17	18	%30,36	%32,14	<b>%1,78</b>
	3]	1	0	%1,78	%0	<b>%1,78</b>
(3) Silabak	Kopurua	Ez	Ez			<b>Ez</b>
	Pisua	Ez	Ez			<b>Ez</b>
	Estrametr.	Ez	Ez			<b>Ez</b>
(5) bereizgarritasuna	sg. eta pl.	Bai	Bai			<b>Ez</b>
	lexikoa	Bai	Bai			<b>Ez</b>

Datuek berez hitz egiten dute: Kortezubiko hizkeran belaunaldi bien arteko bariazioa ia nulua da. Izan ere, 56 datutatik bakarra dute ezberdin. Hortaz, belaunaldi heldutik gaztera azentu transmisioak ez du ia hutsik egin Kortezubin.

Orain arteko ikerketek esandako gure datuetara aplikatzen badugu, 56 datutatik 29 izan beharko lirateke 1] (mugagabeak eta singularrak), 18 datu 2] (pluralak), 6 [1 (lexikoki markatuak) eta 3 [2 (lexikoki markatuak). Baina, zenbatean betetzen dute eredu prototipiko hori belaunaldi gazteak eta helduak?

	56 datutik			Zenbatean betetzen da?	
	Teorikoki	H	G	H	G
1]	29 (%100)	29	29	%100	%100
2]	18 (%100)	17	18	%94,44	%100
[1	6 (%100)	6	6	%100	%100
[2	3 (%100)	3	3	%100	%100

Betetze maila ia %100 da. Helduak badu aldaera txiki bat, baina ez dirudi adierazgarria denik, datu bakarreko aldaera delako. Kortezubiko belaunaldi bien arteko bariazioa, hortaz, %1,78koa baino ez da.

## 5.2. Tolosa

Tolosako belaunaldi biek Kortezubikoek baino bariazio handixeagoa dutela erakusten du hurrengo taulak:

		Betetzen da? Zenbatean?				Bariazioa
		56 datutatik		Ehunekotan		
		H	G	H	G	
(2) Azentu norabidea eta kokapena	[1	16	19	%28,57	%33,93	<b>%5,35</b>
	[2	39	35	%69,64	%62,50	<b>%7,14</b>
	[3	1	2	%1,79	%3,57	<b>%1,78</b>
	1]	0	0	%0	%0	<b>%0</b>
	2]	0	0	%0	%0	<b>%0</b>
	3]	0	0	%0	%0	<b>%0</b>
(3) Silabak	Kopurua	Ez	Ez			<b>Ez</b>
	Pisua	Ez	Ez			<b>Ez</b>
	Estrametr.	Bai	Bai			<b>Ez</b>
(5) bereizgarritasuna	sg. eta pl.	Ez	Ez			<b>Ez</b>
	lexikoa	Bai	Bai			<b>Ez</b>



Belaunaldi bien artean bariazioa egon badago, baina Kortezubin bezala, hemen ere ez da adierazgarriena.

Orain arteko ikerketek diotena jarraituz gero, gure 56 datutatik 17 (silaba bakarreko hitz estrametrikalak eta hitz lexikoki markatuak) [1 egiturakoak izan beharko lirateke eta 39 (mugagabeak, singularrak eta pluralak) [2 egiturakoak. Ikus dezagun zenbatean okertzen diren benetako datuak teorikoki beharko lukeen datuetatik:

	56 datutik			Zenbatean betetzen da?	
	Teorikoki	H	G	H	G
[1]	17 (%100)	16	19	%94,12	%111,76
[2]	39 (%100)	39	35	%100	%89,74

Helduak liburuen araberrako hizkeraren azentuera egokiago betetzen du gazteak baino: markatu gabeko hitzetan ehuneko ehunean betetzen du eta markatuetan bariazioa % 5,88koa baino ez da. Hau da, [1 egiturako 17 hitz ekoiztu beharrean, bat gutxiago ekoizten du, beste hori ez dagokion bestelako egituraren batekin ekoiztuz.

Gaztea gehiago aldentzen da zuzentzat jotzen den egituretatik: %11,76an hitz markatuetan eta %10,26an hitz azentugabeetan. Hau da, teorikoki 17 hitzek beharko lukete [1 egitura markatua, baina gazteak hitz bi gehiagori ezarri die egitura hori, teorikoki markatugabe beharko luketen hitzak markatu bihurtuz. Ondorioz, %111,76an betetzen dela diogu; behar baino gehiagoan.

Laburbilduz, hitz markatu gabeetan zein markatuetan (%5,35 eta %1,78), Tolosako gazteen eta helduen arteko azentu bariazioa %7,14 da.

### 5.3. Lekarotz

Belaunaldi bien arteko aldaera zenbaterainokoa den erakusten du hurrengo taulak:

		Betetzen da? Zenbatean?				Bariazioa
		56 datutatik		Ehunekotan		
		H	G	H	G	
(2) Azentu norabidea eta kokapena	[1	0	0	%0	%0	<b>%0</b>
	[2	0	0	%0	%0	<b>%0</b>
	[3	0	0	%0	%0	<b>%0</b>
	1]	12	7	%21,43	%12,50	<b>%8,93</b>
	2]	40	47	%71,43	%83,93	<b>%12,5</b>
	3]	4	2	%7,14	%3,57	<b>%3,57</b>
(3) Silabak	Kopurua	Ez	Ez			<b>Ez</b>
	Pisua	Bai	Bai			<b>Ez</b>
	Estrametr.	Ez	Ez			<b>Ez</b>
(5) bereizgarritasuna	sg. eta pl.	Ez	Ez			<b>Ez</b>
	lexikoa	Bai?	Bai?			<b>Ez</b>

Hirugarren herri honetan ere esan genezake belaunaldi heldua eta gaztea ez direla elkarren ereduetatik gehiegi urrundu, hala ere, badago bariazio txiki bat. Orohar gaztea 2] egiturari fidelagoa zaiola ikus genezake. Ez da harritzekoa, gaztelaniaz ere hori baita eredu arruntena (“llana” deritzon egitura, hain zuzen). Hizkera homogeneousatzen ari da gazteria, aldaerak alboratu eta 2] eredurantz baitoa zuzenean.

Belaunaldi gaztea 2] egiturari fidelagoa zaion arren, belaunaldi helduak ere portzentaia handian betetzen du prototipikotzat hartzen den egitura hori, %71,43an betetzen baitu. Gazteak, halaber, helduak baino %12,5 gehiago betetzen du eredu:

	56 datutik			Zenbatean betetzen da?	
	Teorikoki	H	G	H	G
2]	56 (%100)	40	47	%71,43	%83,93

Laburbilduz, Lekarotz da hiru herrietatik bariazio diastratiko handiena duena: %12,5.

**6. BARIAZIO DIATOPIKOA**

Aldagai diatopikoa edo geografikoa aztertuko dugu hurrengo. Hau da, herrietako hizkera ezberdinen artean dagoen azentu bariazioa zenbatekoa den ikusiko dugu. Belaunaldien arteko bariazioa handiegi aizan ez denez, herrien arteko bariazio geografiko orokorra analizatuko da jarraian, herri bakoitzeko lekuko bien joerak kontuan hartuz.

		Betetzen da? Zenbatean?					
		Kortezubi		Tolosa		Lekarotz	
		H	G	H	G	H	G
(2) Azentu norabidea eta kokapena	[1	%10,71	%10,71	%28,57	%33,93	%0	%0
	[2	%5,36	%5,36	%69,64	%62,50	%0	%0
	[3	%0	%0	%1,79	%3,57	%0	%0
	1]	%51,79	%51,79	%0	%0	%21,43	%12,50
	2]	%30,36	%32,14	%0	%0	%71,43	%83,93
	3]	%1,78	%0	%0	%0	%7,14	%3,57
(3) Silabak	Kopurua	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
	Pisua	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai
	Estrametr.	Ez	Ez	Bai	Bai	Ez	Ez
(5) Bereizgarritasuna	sg. eta pl.	Bai	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez
	lexikoa	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai?	Bai?

Azentu norabidea eta azentua txertatzeko silaba aztertzen badira, hiru herriek joera ezberdinak dituzten arren, hiruretan argi eta garbi nabarmentzen da egituretako bat (markatugabea): Kortezubin 1], Tolosan [2 eta Lekarotzen 2].

Gainera, argi eta garbi ikus daiteke hiru herriek bai [3 eta baita 3] egiturak baztertzen dituztela. Salbuespenezko kasuetan baino ez dira agertzen: [3 egitura gehienez %3,57an Tolosan (gaztearen ekoizpena) eta 3] gehienez %1,78an eta %7,14an Kortezubin eta Lekarotzen urrenez urren (biak ere helduen ekoizpenak dira). Hortaz, ezkerretik zein eskuinetik, baina lehenengo edo bigarren silaba dute atseginen hiru herriek. Zehatzago,

Tolosak eta Lekarotzek bigarren silaba dute maiteen (batak ezkerretik eta besteak eskuinetik), Kortezubik berriz lehenengoa.

Bestalde, Tolosak ezkerretik eskuinerako norabidea baino ez du onartzen. Gauza bera egiten du Lekarotzek, baina eskuinetik ezkerreara. Kortezubi aberatsagoa da: normalean eskuinetik ezkerreko norabidea izan ohi duen arren (%51,79an ez markatueta), hitz markatueta arako ezkerretik eskuinerakoa ere onartzen du (%10,71an [1 egitura eta %5,36an [2 egitura).

Silabei dagokienez ere desberdin xamarak dira hiru herriak. Tolosa da azentuari azken silaban txertatzen uzten ez dion herri bakarra, Kortezubi eta Lekarotz ez baitira estrametrikokoak.

Silaben pisua, ordea, Lekarotzen baino ez da kontuan hartzen. Izan ere, azken silaba pisutsua denean (CVC egitura duenean hain zuzen), azentua erakartzen baitu.

Bereizgarritasunari begiratu gero, Kortezubi da azentuaren bidez hitzak bereizten ahalegin handiena egiten duen herria, lexikoki azentuaturiko hitzak izateaz gain, singularra eta plurala ere bereizten baititu.

## 7. EUSKARA ESTANDARRAREKIKO BARIAZIOA

---

Euskara estandarra hedatuz eta jendearentzat hizkera arrunt bihurtuz joan den heinean, euskara estandarra prosodia egitura batzuei lotuago agertuz joan da; bere bidea egin du. Are gehiago, prosodiagatik bakarrik, pertsonei buruz uste baino espekulazio gehiago egin genitzake. Hau da, kaletik pasean gabiltzala bi esaldi ezberdin hauek entzutea ez da arraroegia: “amónaren ogitartekóa ekarrí du” edo “amónaren ogítartekoa ekárri du”. Gutariko askori irudituko zaigu lehenengo hiztunak euskara etxetik kanpo ikasi duela, edo behintzat doinu pixka bat artifiziale duela. Bigarren hiztunaren doinua atseginago gertatuko litzaiguke eta ziurrenik euskara jatorragoa darabilen sentsazioa transmitituko liguke, horrela ez izan arren.

Euskara estandarra arautu zenean, 1968an hasi eta geroago ere jarraitu duen lana kontuan hartuz, ez dira hizkera berri horren berezitasun prosodikoak arautu. Horrela, hiztun bakoitzak egokien deritzon prosodia gehitu dio euskara estandarrari. Hualdek (1997: 142) dio “euskara batua ikasi duten euskaldun zahar batzuek, beraien jatorrizko azentuera erabiltzen dute”la euskara batuaz ere. Gipuzkoar askok egiten omen dute hori. “Hala ere, beraien jatorrizko hizkera oso bestelakoa bada, askotan hiztunek beste sistema prosodiko bat erabiltzen dute euskara batuan hitzegiteko”.

Sakontze Egitasmo honetan belaunaldi bi ditugu aztergai: heldua eta gaztea. Biek ere euskara estandarra ezagutzen duten arren, ez deritzot ausartegia D ereduan ikasitako belaunaldi gazteak euskara estandarrarekin harreman estuagoa eta sakonagoa duela baieztatzeari. Euskararen bariazioa aztertutako lan ugarietan (Ariztimuño 2010, Aurrekoetxea 2008, Ezenarro 2008, Lujanbio 2011, Ormaetxea 2008, Santazilia 2009, Unamuno 2010...) argi ikusten da belaunaldi gazteak estandarrerako joera nabarmena duela eta hizkera berri horren ezarpena izan dela belaunaldi bien arteko bariazio izugarriaren eragile nagusietako bat (erdaren presioa eta euskararen irakaskuntzarekin batera, Gaminde 2011).

Baina zer gertatu ote da prosodiarekin? Prosodia ere aldatuko ote zen hainbeste belaunaldi helduaren eta gaztearen artean? Izan ere, prosodia araututa ez dagoenez, ez da inon irakasten, hortaz, belaunaldi biek ia-ia harreman antzekoa dute euskara estandarraren prosodiarekin.

Hurrengo lerrootan Kortezubi, Tolosa eta Lekarotzeko sei hiztunek euskara batuaren prosodiarekin duten harremana zer nolakoa den ikusiko dugu. Horretarako, lehenengo euskara batuaren azentuera zer nola definitua izan den ikusiko dugu, gero hiru hizkerekin alderatzeko.

### 7.1. Euskara estandarraren azentuera

Esan bezala, hiztun bakoitzak berari egokien iruditzen zaion azentuera ezartzen dio euskara estandarrari. Hala ere, ikerketek erakusten digute euskara estandarraren azentuera ez dela dirudien bezain kaotikoa. Horren adibide dira Gamindek 2011ko lanean ateratako hiru ondorio hauek:

- Azentu ereduak homogeneizatzeko joera.
- Azentuaren bidezko bereizkuntzak galtzeko joera.
- Euskara batuak berezko azentu ereduak garatu izana.

Badirudi euskara estandarra ere ekonomiaren legearen menpe dagoela. Hualdek (1997: 142) diosku euskara estandarrak “batik bat [+2] azentuera du”ela. Elordietaren ustez portaera honen arrazoia irrati-telebistetako esatarien eragina da, hala ere, ez dago oso garbi nola gertatu den [2] egituraren hedatze hau.

Hualdek (1994: 1559-1561) Euskaltzaindiako Ahoskera Batzordearen eskariz egindako lanean, hurrengoa proposatu zuen euskara baturako:

- I. “Kasu orokorrean, azentua hitzaren bigarren silaban erortzen da: mendía, txakúrra, emákumea, bertsólariarekin.
- II. Salbuespenak. Azentua hitzaren lehenengo silaban erortzen da
  - a) Erroa silababakarra denean: lúrra, lúrrera, lúrretako.
  - b) Hitz markatu batzuetan: lékuan, bésteari, áurrera, átzetik.
- III. Bigarren mailako azentu bat talde prosodikoaren azken silaban erortzen da: txistúlarià, txistúlaria dà.”

Proposamen sinplea den arren, onartzekotan, puntu asko lituzke finkatzeko: maila lexikoan, hitz markatuen arazoa (zein hitz hautatu markatutzat euskara estandarerako?) Euskara estandararen egitura, esaldi mailako fenomenoak (azentu eremua non dagoen esaldian, galdegai...).

Ikusi dugun moduan, oraindik euskara estandararen azentuera definitu gabe dagoen arren (Gaminde, 2011; Aurrekoetxea, Gaminde, Gandarias eta Iglesias, 2012), homogeneizazio joeren arabera [2 eta azentuaren araberako bereizgarritasun eza da egitura orokortuena. “Euskara batuaz hitz egiterakoan hiztunek erabiltzen dituzten azentu sistemak oso sinpleak dira normalean, inolako marka lexikorik gabe” (Hualde 1997: 143).

## 7.2. Euskara estandarrekiko bariazioa herriz herri

Ikusi berri dugunaren arabera, euskara estandarra [2 egiturakoa da, estrametrikala eta lexikoki markaturiko hitzak ditu. Hurrengo taula honetan orain artean aztertu ditugun hiru herrien datuak agertzen dira euskara estandarrek dituen ezaugarriekin batera, datu guztiak begi bistan izanda osteko konparazioa ulerterrazagoa izango delakoan:

		Kortezubi		Tolosa		Lekarotz		Estand.
		H	G	H	G	H	G	
(2) Azentu norabidea eta kokapena	[1	% 10,71	% 10,71	% 28,57	% 33,93	% 0	% 0	
	[2	% 5,36	% 5,36	% 69,64	% 62,50	% 0	% 0	✓
	[3	% 0	% 0	% 1,79	% 3,57	% 0	% 0	
	1]	% 51, 79	% 51, 79	% 0	% 0	% 21,43	% 12,50	
	2]	% 30,36	% 32,14	% 0	% 0	% 71,43	% 83,93	
	3]	% 1,78	% 0	% 0	% 0	% 7,14	% 3,57	
(3) Silabak	Kopurua	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	
	Pisua	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai	
	Estrametr.	Ez	Ez	Bai	Bai	Ez	Ez	✓
(5) Bereizgarritasuna	sg. eta pl.	Bai	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	
	lexikoa	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai?	Bai?	✓

Euskara estandarra hitz ez-markatueta ezkerretik bigarren silaban azentuatu ohi da Tolosako hizkera bezala. Kortezubiko hizkeran ere egitura horretako hitzak badauden arren, markatuak dira. Hortaz, argi eta garbi (2) azentu norabidean eta kokapenean Tolosako hizkera dago euskara estandarretik hurbilen.

Silaben nolakotasunari begiratzen badiogu, euskara estandarrak ez dio silaba kopuruari ezta pisuari kasurik egiten azentua ezartzerako garaian. Alabaina, estrametrikoa da Tolosa bezala eta Kortezubi eta Lekarotz ez bezala.

Lexikoki markatutako hitzak bai Kortezubin, bai Tolosan eta zalantza gehiagoz, baina Lekarotzen ere badaudela esan da. Euskara estandarrak ere ba omen ditu hitz markatuak. Hala ere, Gaminderen lanean agertzen zen moduan, azentu bidezko bereizkuntzak galtzeko joera dago. Horren adibide garbia da Lekarotzek badituen ere ezin ziurta ahal izatea. Beste herri biei dagokienean (Kortezubi eta Tolosa), Kortezubiko hizkerak lexikoki markaturiko hitz gehiago dituen susmoa dut, gure datuetan agertzen direnetan behintzat, Tolosan baino errotuago baitaude lexikoki markaturiko hitzak. Hala ere, ezin jakin zein neurritaraino izan daitekeen egia susmo hori.

Singularra eta plurala bereizteak Kortezubiko euskara estandarretik urruntzen du, estandarrak fonema ezberdinen bidez burutzen baitu bereiztea, eta ez azentuaren bidez.

Laburbilduz, Tolosako hizkera da estandarretik hurbilen dagoena: (5) ataleko ezaugarrietan bete-betean datoz bat, (3)ko ezaugarri guztietan ere bai eta (2) atalean ere Tolosako hizkera da gutxi gorabehera %65ean estandarreko eredura gehien hurbiltzen dena.

Beste herri bien artean euskara estandarretik hurbilen zein dagoen esatea ez da erraza, ezaugarri oso ezberdinak dituztelako. Ez bata ezta bestea ere ez dira estrametrikalak eta gehiago ala gutxiago, biek dituzte lexikoki markaturiko hitzak. Hala ere, Tolosaren ostean Kortezubi euskara estandarretik Lekarotz baino hurbilago dagoela esango nuke (2) atala gutxienez %5ean betetzen baita (markatuetaarako izan arren). Lekarotzek ez du [2 egiturako hitz bakar bat ere ez bere hiztun bien arabera. Lexikoki markaturiko hitzei



dagokienez ere, Kortezubik Lekarotzek (baldin baditu) baino askozaz gehiago dituelako ustea dugunez, Kortezubi estandarretik hurbilago legoke.

## 8. ONDORIOAK

---

hasieran planteatu ditugun hipotesi edo susmoak zertan gelditu diren laburbiltzeko garaia ere bada. Horri ekina urretik, hala ere, gogoratu nahiko nuke Sakontze Egitasmo hau saiakera txiki bat baino ez dela, datu gutxi batzuk baino ez dituen oinarri. Emaitza edo ondorio finkoagoak lortzeko belaunaldi ezberdinetako hiztun gehiago eta Euskal Herriko herri gehiago hartu beharko genituzke kontuan.

Aztertutako hiru herrietan, bariazio diastratikoa oso txikia da. Bariazio gehien Lekarotzen eta gutxien Kortezubin dagoela ikusi dugun arren, ez da datu esanguratsurik susmatzen. Belaunaldi bien artean gehienez ere %12,5eko bariazioa dagoela ikusi dugu Lekarotzeko datuei begiratuta. Kortezubik %1,78ko bariazioa baino ez du eta Tolosa bien tartean dago %7,14ko bariazioarekin. Hortaz, azentu transmisioa nahiko fidelki gertatzen ari dela ondoriozta genezake.

Izan ere, egun burutzen ari diren ikerketek erakusten dute bestelako alorretan (lexikoan, syntaxian eta morfologian) belaunaldien arteko aldea izugarria da. Esate baterako Dimako euskaran belaunaldi helduaren eta gaztearen arteko bariazioa izugarria da: %16 lexikoan, %23 izen morfologian, %60 aditz morfologian eta %65 syntaxian. Guztira, %42ko bariazioa (Aurrekoetxea, 2008: 22). Ikaragarria da; bizpahiru belaunalditan hizkera osoa aldatzeko moduko datuak dira.

Bariazio diatopikoan ere ikusi dugu hiru herriek oso nolakotasun ezberdina dutela: azentua ezartzeko norabidea eta kokapena; silaba kopurua, pisua eta estrametrikalitatea eta singularraren eta pluralaren arteko bereizgarritasuna zein lexikoki markaturiko hitzena oso ezberdin ematen dute hirurek. Orohar ez datoz bat ia ezaugarri batean ere ez. Hori da hasiera-hasieratik espero zena, nahita aukeratu bainituen hizkera oso desberdineko hiru herri.

Bariazio geografikoan, baina, prosodiak ere hizkera bereiztasunean parte hartzen duela erakutsi digu ezaugarri lexiko, sintaktiko zein morfologikoez egiten duten era berean. Hortaz, euskalkien sailkapenak egiterakoan prosodia ere, bestelako ezaugarriak bezalaxe, kontuan hartu beharreko puntu garrantzitsua da.

Era berean, bariazio diatopikoak Lekarotzeko hizkerak gaztelaniaren antzekoena duela ikusten ere lagundu digu, antzeko egitura baitute.

Euskara estandarra eta hiru hizkerak konparatzean ez diegu zalantzei toki gehiegi utzi: orain arteko ikerketetan agertzen den moduan, erdialdeko hizkera, hots, Tolosakoa da azentuari dagokionez hizkera estandarretik hurbilen dagoena: euskara estandarra bezala estrametrikala da, lexikoki markaturiko hitzak dauzka eta gutxi gora-behera %65ean estandarrak duen [2] egitura betetzen du.

Era honetako lanen bidez, pixkanaka-pixkanaka euskararen azentuaren eta oro har prosodiaren nolakotasuna azaleraiz badoa ere, oraindik asko dago lantzeko eta sakontzeko.

Sakontze Egitasmo honetan azentuaren alor batzuk baino ez dira jorratu. Hizkeren prosodia behar bezala deskribatzeko, ordea, oraindik azentua behar bezala deskribatzeaz gain intonazioa ere aztertu beharko da. Aurrerapausoak eman ahala, euskararen ahozketasunaren prosodiaren transkribapena eta anotazioa nolakoak izan behar diren dioen erabaki multzoa lortuko dugu: Eusk\_ToBI sistema hain zuzen.

**9. BIBLIOGRAFIA**

---

- Altube, Seber, 1932, “El acento vasco”, *Euskera* XVIII urtea I-IV zbkia: 5-329.
- Ariztimuño, Borja, 2010. “Tolosako eta Ataungo hizkerak: hizkuntz bariazioa eta konbergentzia joerak” [Linguistic Variation and levelling in Tolosa and Ataun dialects], *Uztaro* 72, 79-96.
- Aurrekoetxea, Gotzon, 2008, “Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskaran”, in *Euskalingua* 12, 17-26
- Aurrekoetxea, Gotzon, Jon Sánchez eta Igor Odriozola, 2009, “EDAK: A Corpus to Analyse Linguistic Variation” in Pascual Cantos Gómez & Antonio Sánchez Pérez (arg.) *A Survey on Corpus-based Research Panorama de investigaciones basadas en corpus*. Murcia: Asociación Española de Lingüística del Corpus. 489-503.
- Aurrekoetxea, Gotzon eta Aitor Iglesias, 2010, “Technology for Prosodic Variation: first data from EDAK”, in Aurrekoetxea, G. & J. L. Ormaetxea (arg.), *Tools for Linguistic Variation*, ASJU-ren eranskinak, Bilbo: UPV/EHU, 207-229.
- Aurrekoetxea, Gotzon, Iñaki Gaminde, Leire Gandarias eta Aitor Iglesias, 2011, “Prosodic Variation in the Basque language: stress areas”, in *Proceedings of International Symposium on Limits and Areas in Dialectology*. Lisboa, 2011. (argitaratzeko onartua)
- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Gandarias, L., Iglesias, A., 2011, “Variación prosódica en vasco: áreas acentuales”, V. congreso internacional de fonética experimental (Cáceres, 2011), aktetan argitaratzeko onartua.
- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Gandarias, L., Iglesias, A., 2011, “Prosodic Variation in the Basque Language: Stress Areas” LimiAr (Lisboa, 2011) biltzarrean aurkeztua (Aktetan argitaratzeko onartua).
- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Gandarias, L., Iglesias, A., 2012, “Stress Accent in Basque from the traditional dialects to standard variety” in 7<sup>th</sup> SIDG Congress (argitaratzeko).
- Aurrekoetxea, Gotzon eta J. L. Ormaetxea, 2011, “Euskara dialektalaren ahozko corpora (EDAK)”, in A. Sagarna; J. Lakarra; P. Salaberri (eds.), *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*, Iker-26. Bilbo: Euskaltzaindia, 1221-1234.
- Azkue, Resurrección Maria de, 1930-31, “Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos”, in *Euskera* 11: 282-297 eta 12: 3-50.

- Bailey, T. M., 2007, *The Stress System Database*.  
<http://www.cardiff.ac.uk/psych/subsites/ssdb/index.html>
- Bonaparte, Louis Lucien, 1869, *Le Verbe Basque en tableaux*. Londres: Strangeways & Walden. Berrargitaratua in Bonaparte 1991, I. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Elordieta, G., Gaminde, I. eta Hualde, J.I., 1998, “Euskal azentua gaur eta bihar”, *Euskera* XLIII-2
- Ezenarro, Amaia, 2008, “Etxebarria eta Bolibarko bariazio linguistikoa”, *Uztaro* 67, 59-84.
- Gaminde, I., 1993a, “Bizkaieraren geografia eta bizkaieraren azentua”, in *II. Jardunaldiak Soziolinguistikaz: Bizkaiko euskera, bizkaiera?* Bilbo. 45-56.
- Gaminde, I., 1993b, “Bizkaiko azentu-motei buruz”, *Uztaro* 7: 111-140.
- Gaminde, I., 1997, “Mendebaldeko azentuak” in *Mendebaldeko euskara XX. Mendegienean*. Bilbo: Mendebalde Kultura Elkartea. 175-191.
- Gaminde, I., 1998, *Euskaldunen azentuak*. Bilbao: Labayru.
- Gaminde, I., 2010, *Bizkaiko gazteen prosodiaz: euskaraz eta gaztelaniaz*. Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea and BFA.
- Gaminde, Iñaki, 2011, “Noraka euskal azentuak?” in *Aurrekoetxea*, Gotzon eta Iñaki Gaminde (arg.) *Prosodiaz eta Hezkuntzaz I. Jardunaldiak*. Bilbo: UPV-EHU.
- García Ferrando, Manuel, 2000, “La encuesta” in Alvira, García Ferrando eta Ibañez (biltzaileak), *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*. Madril: Alianza Editorial
- Heinz, J., 2010, *UD Phonology Lab Stress Pattern Database*.  
<http://phonology.cogsci.udel.edu/dbs/stress/>
- Hyman, Larry, 1981, *Fonología: teoría y análisis*. Madrid: Paraninfo.
- Hualde, J. I., 1994, “Euskal azentuak eta euskara batua”. *Euskera* 39-2: 1549-1568.
- Hualde, J. I., 1997, *Euskararen azentuerak*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Hualde, J. I., 2006, “Estado actual de las investigaciones sobre acentuación vasca”. *Oihenart*, 21: 149 - 177.
- Hulst, H.G. van der & Goedemans, R., 2009, StressTyp: “A Database for Word Accentual Patterns in the World's Languages” in: Martin Everaert and Simon Musgrave (eds.). *The use of databases in cross-linguistics research*. New York/Berlin: Mouton de Gruyter, 235-282.
- Hulst, H.G. van der & Goedemans, R., 2010, *StressTyp*.  
<http://www.unileiden.net/stresstyp/>

- Hulst, H.G. van der, Goedemans, R. & Zanten, van E., 2010, "Word Accent: terms, typologies and theories" In: R. Goedemans, H.G. van der Hulst & E. van Zanten (eds.). *Word accent structure in the languages of the world*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Joly, Lionel, 2011, "1.2. Soziolinguistikaren oinarrizko kontzeptuak". *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Labov, William, 1976, *Sociolinguistique*, Paris: De Minuit.
- Larrasket, Jean, 1928, *Action de l'accent dans l'évolution des consonnes étudiée dans le basque souletin*. Paris: Vrin.
- Lujanbio, Oihana, 2011, "Hizkuntza aldakortasuna Goizuetako euskaran". *Uztaro* 80: 77-97
- Martinez, Zesar; Kontxeso Berrio-Otxoa; Olatz Altuna eta Nekane Jausoro, 2011, "2.1. Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak". *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Mitxelena, Koldo, 1957-8, "A propos de l'accent basque". *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris* 53: 204-233. Berrargitaratua: Mitxelena 1988, I, 220-239.
- Mitxelena, Koldo, 1972, "A note on old Labourdin accentuation", *ASJU* 1: 163-177. Berrargitaratua: Mitxelena 1987, 235-344.
- Mitxelena, Koldo, 1976, "Acentuación alto-navarra". *FLV* 23: 147-162. Berrargitaratua: Mitxelena 1987: 269-282.
- Mitxelena, Koldo, 1987, *Palabras y textos*. Leioa: EHU.
- Navarro Tomás, T., 1926, "Sobre la entonación y el acento vascos", *RIEV*, XVII, 404 – 406.
- Ormaetxea, Jose Luis "Txipi", 2008, "Otxandioko hizkera: adinaren araberako bariazioa", *FLV*, 249-262.
- Prieto, Pilar, Lourdes Aguilar, Ignasi Mascaró i Pons, Francesc Josep Torres eta Maria del Mar Vanrell, 2009, "L'etiquetatge prosòdic Cat\_ToBI", *EFE* XVIII, 287-309.
- Salaburu, Pello, 1984, "Baztango azentua", *Arau fonologikoak. Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: Fonetika eta Fonologia II*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. 299-328.
- Santazilia, Ekaitz, 2009, "Luzaideko hizkuntz bariazioa", *FLV*, 219-248.
- Txillardegui, 1984, *Euskal Azentuaz*. Donostia: Elkar.

Unamuno, Lorea, 2010, “Adinaren araberako bariazioa Gizaburuagako hizkeran”,

*Euskalingua* 16, 41-48.

Zarraga, Arkaitz, Jean Baptiste Coyos, Jone M. Hernandez, Lionel Joly, Imanol Larrea,

Loren Martinez, Belen Uranga eta Paul Bilbao, 2010, Soziolinguistika

eskuliburua, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza

Zuazo, Koldo, 2008, *Euskalkiak euskararen dialektoak*, Donostia: Elkar

**11. ERANSKINAK****11.1. Kortezubi**

<b>Kodea</b>	<b>Kortezubi Heldua</b>	<b>Kortezubi Gaztea</b>
97001	o'na	o'na
97002	u're	u're
97003	śu'e	śu'e
97004	ke'je	ke'je
97005	śej'je	śej'je
97006	lu're	lu're
97007	a'ra	a'ra
97008	'onak	'onak
97009	'urek	'urek
97010	'śuek	'śuek
97011	'kejek	'kejek
97012	'śejjek	'śejjek
97013	'lurek	'lurek
97014	'arak	'arak
97015	neś'ka	neś'ka
97016	neśki'e	neśki'e
97017	'neśkak	'neśkak
97018	śe'me	śe'me
97019	śemi'e	śemi'e
97020	śe'miek	śe'miek
97021	o'yi	o'yi



97022	oyi'ʃe	oyi'ʃe
97023	o'ʃiʃek	o'ʃiʃek
97024	aʃ'to	aʃ'to
97025	aʃtu'e	aʃtu'e
97026	aʃ'tuek	aʃ'tuek
97027	ka'tu	ka'tu
97028	katu'e	katu'e
97029	ka'tuek	ka'tuek
97030	tʃa'kur	tʃa'kur
97031	tʃaku're	tʃaku're
97032	tʃa'kurek	tʃa'kurek
97033	'denda	'denda
97034	'oɫar	'ojar
97035	'dendie	'dendie
97036	'oɫara	'ojara
97037	'dendak	'dendak
97038	'oɫarak	'ojarak
97039	aβe'ratʃ	aβe'rats
97040	aβera'tʃa	aβera'tsa
97041	aβe'ratʃak	aβe'ratsak
97042	alar'ɣun	alar'ɣun
97043	alaryu'ne	alaryu'ne
97044	alar'ɣunek	alar'ɣunek
97045	itʃu'ri	itʃu'ri

97046	icuri <sup>1</sup> ʃe	itʃuri <sup>1</sup> ʃe
97047	icu <sup>1</sup> riʃek	itʃu <sup>1</sup> riʃek
97048	ala <sup>1</sup> βa	ala <sup>1</sup> βa
97049	alaβi <sup>1</sup> e	alaβi <sup>1</sup> e
97050	a <sup>1</sup> laβak	a <sup>1</sup> laβak
97051	itʃa <sup>1</sup> ʃo	itʃo <sup>1</sup> ʃo
97052	itʃaʃu <sup>1</sup> e	itʃoʃo <sup>1</sup> a
97053	i <sup>1</sup> tʃaʃuek	itʃo <sup>1</sup> ʃoak
97054	be <sup>1</sup> lari	be <sup>1</sup> lari
97055	be <sup>1</sup> lari <sup>1</sup> ʃe	be <sup>1</sup> lariʃe
97056	be <sup>1</sup> lari <sup>1</sup> ʃek	be <sup>1</sup> lariʃek

## 11.2. Tolosa

Kodea	Tolosa Heldua	Tolosa Gaztea
97001	o'na	'ona
97002	u'ra	'ura
97003	'sua	'sua
97004	'kea	'kea
97005	'jeja	'jeja
97006	'lura	'lura
97007	a'ra	'ara
97008	'onak	'onak
97009	'urak	'urak
97010	'suak	'sua <sup>k</sup>
97011	'keak	'keak
97012	'sejak	'sejak
97013	'lurak	'lurak
97014	a'rak	'arak
97015	neś'ka	neś'ka
97016	'neśka	'neśka
97017	'neśkak	'neśkak
97018	'śeme	śe'me
97019	śe'mea	śe'mea
97020	śe'meak	śe'meak
97021	o'yi	o'yi
97022	o'ya	o'ya

97023	o'yiak	o'yiak
97024	aś'to	aś'to
97025	aś'toa	aś'toa
97026	aś'toak	aś'toak
97027	ka'tu	ka'tu
97028	ka'tua	ka'tua
97029	ka'tuak	ka'tuak
97030	tʃa'kur	tʃa'kur
97031	tʃa'kura	tʃa'kura
97032	tʃa'kurak	tʃa'kurak
97033	'ðenda	'ðenda
97034	'oʎar	'leku
97035	'denda	'denda
97036	o'ʎara	le'kua
97037	den'dak	'dendak
97038	o'ʎarak	le'kuak
97039	a'βerats	aβe'rats
97040	a'βera,tʃa	a'βera,tʃa
97041	aβe'ratʃak	a'βera,tʃak
97042	a'laryun	alar'yun
97043	a'laryu,na	a'laryu,na
97044	a'laryu,nak	a'laryu,nak
97045	i'tsuri	i'turi
97046	i'turia	i'turia

97047	i'turiak	i'turiak
97048	a'laβa	a'laβa
97049	a'laβa	a'laβa
97050	a'laβak	a'laβak
97051	i'tfašo	i'tfašo
97052	i'tfašoa	i'tfašoa
97053	i'tfašo,ak	i'tfašo,ak
97054	βe'lari	βe'lari
97055	βe'laria	βe'lari,a
97056	be'lariak	be'lari,ak

**11.3. Lekarotz**

Kodea	Lekarotz Heldua	Lekarotz Gaztea
97001	'ona	'ona
97002	'ura	'ure
97003	'sua	'sue
97004	'ekja	'ekja
97005	'seja	'seja
97006	'lura	'lure
97007	'ara	'ara
97008	'onak	'onak
97009	'urak	'urek
97010	'suak	'suek
97011	'ekjak	'ekjak
97012	'sejak	'sejak
97013	lu'rak	'lurek
97014	'arak	'arak
97015	neś'ka	'neśka
97016	neś'ka	'neśka
97017	neś'kak	'neśkak
97018	še'me	'šeme
97019	še'mea	še'mea
97020	še'meak	še'meak
97021	o'yi	'oyi
97022	o'ya	'oyje

97023	o'ɣiak	'oɣjek
97024	'ašto	'ašto
97025	aš'toa	'aštoa
97026	aš'toak	'aštoak
97027	'katu	ka'tu
97028	ka'tua	ka'tue
97029	ka'tuak	ka'tuek
97030	sa'kur	sa'kur
97031	sa'kura	sa'kure
97032	sa'kurak	sa'kurek
97033	'denda	'tjenda
97034	o'ɣar	o'ɣar
97035	'denda	'tjenda
97036	o'ɣara	o'ɣara
97037	'dendak	'tjendak
97038	o'ɣarak	o'ɣarak
97039	aβe'rats	aβe'rats
97040	aβe'ratsa	aβe'ratʃa
97041	aβe'ratsak	aβe'ratʃak
97042	alar'ɣun	alar'ɣun
97043	alar'ɣuna	alar'ɣune
97044	alar'ɣunak	alar'ɣunek
97045	i'turi	i'turi
97046	i'turia	i'turia

97047	i'turiak	i'turiek
97048	a'laβa	a'laβa
97049	a'laβa	a'laβa
97050	a'laβak	a'laβak
97051	i'tʃašo	i'tʃašo
97052	i'tʃašo <u>a</u>	i'tʃašo <u>a</u>
97053	i'tʃašo <u>ak</u>	i'tʃašo <u>ak</u>
97054	βe'lari	βe'lari
97055	βe'larie	βe'larje
97056	be'lariek	be'larjek